

GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO 2019. URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ZEHATZAK

IN-E 180/04-19

UDAL ARLOA/SAILA/ERAKUNDEA:	EUSKARA SAILA
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitzuburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Euskara dirulaguntza batzordea
DIRULAGUNTZAREN ATALA:	Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko dirulaguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 88-3
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:	DIRU- 1.000 € (01400335404800102 partidan: Gidabaimena euskaraz ateratzeko dirulaguntza)
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIREN HELBURU ETA ONDORIOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea - Euskararen erabilera sustatzeko udalerriko eragileekin batera ekimenak eta programak bideratzea
EPEA: Hasi: Amaitu: Zuritzeko unea: (aurretiko zuriketa edo gerokoa)	Eskaerak aurkezteko epea, 2019ko urriaren 1etik 31ra.
BALORAZIO ZEHATZAK:	IRIZPIDE <ul style="list-style-type: none"> -Bermeon erroldatuta egotea -Gidabaimenaren prestakuntza euskaraz egitea -B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz eginda eta gaindituta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen -Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea
ESKATZAILEAK: Onuradun motak: Enpresa handia, jarduera ekonomikorik ez duen pertsona fisikoa, jarduera ekonomikorik ez duen pertsona juridikoa edo ETE eta jarduera ekonomikoa garatzen duen pertsona fisikoa.	Bermeon erroldatuta egon eta gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak.



DIRUZ LAGUN DAITEKEEN PROGRAMAREN AZALPENA	<p>Gidabaimena prestatu eta azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzea.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek 150 euroko diru-laguntza jasoko dute.</p>
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	<p>Dirulaguntza emateko prozedura: konkurrentzia ez lehiakorra izango da.</p> <p>Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste edozein dirulaguntzarekin, edozein izaerakoa izanda ere. Beste dirulaguntza horiek beste administrazio batek, zein entitatek emandako dirulaguntzak izan daitezke, beti ere guztiak batuta diruz lagundu daitekeen kostuaren % 100 baino gehiagokoa ez bada. Gain-finantzaketarik balego, diruz lagundutako kostuaren mugaraino murriztuko litzateke dirulaguntza.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira.</p> <p>Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.</p> <p>Aurkeztu beharreko agiriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskaera orri guztiak beteta <ul style="list-style-type: none"> . Dirulaguntzea eskatzeko orria . Aurrekontua. Diruz laguntzeko gastua . Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeagagaitik dirulaguntzea (I. eranskina) . Diru sarreraren eta gastuen zerrendea . Jarduera txostena edo memoria . Zuritze kontuaren adierazpena -Nortasun Agiriaren fotokopia -Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoa euskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria -Erakunderen baten diru laguntza jaso izanaren kasuan, horren frogagiria
PROGRAMA HAU EGITEKO AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK	<p>Programako dirulaguntza kopuru gehinezkoa: 150€. Guztira gehienez 1.000€-ko aurrekontua dago deialdi honetarako dirulaguntzetara bideratuta.</p>
DIRUZ LAGUN DAITEZKEENAK	<p>B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa: 150€</p>
JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ADIERAZLEAK	<p>-Diruz lagundutako gidabaimen kopurua</p> <p>-Gidabaimenaren azterketa teorikoa gainditu duten pertsonetatik, diruz lagundutako gidabaimen kopurua</p>
HONEKIN LOTUTAKO AGIRIAK:	
Genero-eragina:	



Kontrakoa, bat ere ez edo
aldekoa

Batere ez

1/1982 LOaren arabera
argitagarria ez den emakida
BAI/EZ

Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzkoa.

